

bidegileak



Balendin Enbeita (1906-1986)

Egilea:

JON ENBEITA



Balendin Enbeita Goiria (1906-1986)

Balendin Enbeita Goiria, Muxikan, Usparritxa auzuneko Jeuri baserrian jaio zen 1906ko maiatzaren 20an, Balendin Berrio-Otxoa beato egin zuten egunean. Mutila izanez gero, Agustin izena zuten pentsaturik; baina, gertaera hau medio, Balendin deitzea erabaki zuten. Bera izan zen zazpi neba-arrebatan bigarrena. Gazteena, berriz, artean haurtxoa zela, gaixotasun batek eraman zuen.

Hainbat bertsolari haundik belaunaldiz belaunaldi landutako baratzean erne zen gure maiatzeko lorea: Juan Antonio Enbeita *Txotxo Jeuri* (aitona), Kepa Enbeita *Urretxindorra* (aita), Imanol Enbeita *Garbinai* (osaba),... besteak beste.

Guzti honi, bere ama Benita Goiriaren gozotasuna gehituz gero, landare berriak, nahitaez, berezia izan behar.

Beste batek beretzat gordeko zuen guztia, baina Balendin ez zen horietakoa. Zekien eta zuen guztia emateko beti gertu zegoen, ba-

tez ere gazteei. Gizon hurbila zen, hurbila bezain apala, ez zuen aulki haunditik hitz egi-ten. Bere aita Urretxindorra guda aurrean bezala, guda ostean bera bihurtu zen erreferentzia, Bizkaian bereziki, ez bertsolariena bakarrik, euskaltzale eta abertzaleena ere bai. Zoritzarreko guda haren uholdeak dena irentsi ez zezan, gerra aurea eta gerra ostea lotu zituen benetako zubi izan genuen. Benetako bidegile eta eragile.

Ikasketak eta lanbideak

Garai hartan, baserri inguruetan, ez zen eskolatzeko aukera askorik izaten, batez ere, Balendin bezala, etxeko mutilik zaharrena izanez gero. Hasi zazpi urterekin hasi zen, Muxikako Oka auzoan Don Pedro abadeak ematen zituen klaseetara, baina laster utzi behar izan zuen gurasoei baserriko lanetan laguntzeko. Hamasei urterekin, ordurako bazituen neba-arrebak gurasoei laguntzeko, ebanista ikastera joan zen, bertan Okan zeuden tailer batzuetara. Hermenegildo Presilla eskultore famatuaren tailerrak ziren, eta berak irakasten zien,



Jeuri baserria, Balendinen jaiotetxea. Balkoian aitaren ondoan, ezkerretik bigarrena



Balendinek grabatutako kaiza

gauetan, marrazten eta tailatzen. Bi urtera, Bilbon hasi zen lanean Felipe Aiastuiren aroztégian. Lana bukatzean, «Artes y Oficios»etako eskolara joaten zen. Bizikletan egiten zuen egunero Muxikatik Bilborako joan-etorria.

Hogei urte zituenerako ugazabaren konfiantza osoa zuen, eta hala, beste zortzi lagunekin, Logroñora bidali zuen eraikuntza garrantzitsu bateko arotzeri lanak egitera. Logroñotik itzuli eta inguruko eraikuntzetan jarraitu zuen lanean, garraiolari hasi zen arte, bere anaia Imanol lagun zuela.

1935ean, San Andres egunean, Klara Ealorekin ezkondu zen honen Ormaetxe baserrira eta hurrengo urteko urriaren 24an jaiko zen



Guraso eta neba-arrebak



Balendin eta Klara. Ezkontzarako argazkia



Ormaetxe baserria. Zaharra atzean eta aurrean gerra ostean eraikitako berria

lehenengo semea. Baina iritsi zen zoritxarreko gerra eta kamioia eramateaz gain, baserria ere goitik behera hustu zioten. «Etxea bera lepoan eroateko astuntxua nunbait eta lehengo lekuan egoan» idatziko zuen bere liburuan. Eta hori gutxi balitz, ondoren, saritzat, lau urteko kartzela. Espetxetik itzuli zenean, baserriko lanari ekin behar izan zion. Aurreantzean hori izango zuen bere ogibide bakarra. Baina ez pentsa hasiera erraza izan zuenik. «Kartzelan lau urte eginda etorri arren, inguruetan ez egoan erruki haundirik. Ondo zaintzen ninduen.».

Hamabost bat urte igaroko ziren gauzak normaltzen hasterako. Handik aurrera ere nahikoa komeria, baina bere ideia eta egin-beharretan tinko. Azken egunera arte jardungo zuen bere baserriko zereginetan, jubilatzeke esperantzarik gabe. Heriotzak ere baserria atontzen harrapatuko zuen. Baserria zen berarentzat euskararen, ohituren..., hitz batean esateko, Herri honen euskarria. Hamaika bertso baditu baserriari eginak. Poza dario antzinako sukaldea gogoratzean, eta minbera dakusagu, bertan behera utzita ikusten duenean.

Benetako auzokidea

Honetan ere bidegilea izan genuen Balendin. Salatariak inguruan zituen, baina, bere auzoko Pedro Mari Aldanak zioen bezala: «... Balendin, bere gizatasuna ondo erroturik eukalako, guztien laguna zan, bai bateri eta bai besteari, bere ahalmenen barruan, beti laguntza eskaintzeko prest...». Auzokideak galdezka edo laguntza eske beregana joatea gauza arrunta zen. Bera zen Zabale auzoaren arima. Arotz, elektrikari, harakin, praktikari, inausle, okin... denetarik zekien. Sagardoa eta txakolina ere urtero egiten zituen. Egin bakarrik ez, saldu ere bai. Beharbada berea izango da bertsoz egindako lehendabiziko publizitatea, 1950 urtean. Eztirik ere ez zen Ormaetxan falta izaten. Berak egiten zituen erlon-

tziak, erlekumerik ihesi bazebilen bazekien nola harrapatu, eta zaindu ere halaxe. Edozertara moldatzen zen. Gari-jote, txarriboda zein beste ospakizunetan bera zen animatzaile.

Bada hau guztia egiaztatzen duen anekdota bixi bat. Kartzelan igaro zituen lau urteak, hein haundi batean, bere auzotik hurbil bizi zen muxikar baten salaketari «esker» igaro zituen. Balendinek bazuen horren berri. Salatzaileak ez zekien, ordea, Balendinek zekienik. Eta hara non, egun batean, bere madariondoak inausleko eskatzen dion. Balendinek zer egingo eta... eskatu bezala inausi egin zizkion madariondoak eta zenbat ordaindu behar zion galde-tzean, hola erantzun zion: «Bapez, eginda dago, pertsonak alkarrerri laguntzen be jakin behar dau, ez aurka egiten bakarrik».



Baserriko zereginetan



Nekazaritzako II. ferriako ohorezko diploma

Kirolaria eta bertsolaria

Muxika herriaren ospea ez da bertsolariei esker soilik, txirrindulari munduan ere ospetsua izan dugu. Garai batean, etxe bakoitzean txirrindulari bat bazela esatea ez dago hain tokiz kanpo. Sarduitarrak, Jauregitarrak, Lejaregitarrak, Barruetabeña, Elgezabal, Uriona, etab. luze bat ditugu horren lekuko. Barendin gazteak ere bere aprobetxoa egin gabe ezin izan zuen utzi, nahiz eta entrenatzeko astirik izan ez. Bilbora bidaia (ikastera, lanera...) bizikletaz egiten zuen, berdin beste joan-etorri guztiak ere, eta hori zen bere entrenamendua. Garai hartan, gainera, ez zen kategoriarik eta, hasieratik, nagusiekin ibili behar izan zuen. Atletik-ek zeukan txirrindulari taldean sartu zen, baina, bere aitak hala eskatuta, 19 urterekin utzi beharra izan zuen.



Txirrindulari garaian

Ez zen berdina gertatu hitzaren kirolarekin. Ume-umetatik murgildu zitzaigun gure Barendin urretxindorren habiako bertso-magia hartan: bost urte inguru izango zituen aitarekin, Bizkargin, ikasitako bi bertso abestu zituenean. Momentu hura grabatuta gelditu zen gure bertsolariarengan. Laurogei urterekin ere gogoan zituen oraindik.

Baina, nahiz eta lehenengo bertsoak aitaren eskutik abestu, aitona izango zen, plazaratu arte, bere benetako irakaslea. «Gaztetxutatik hasi eta aititagaz izaten nebazan nire hartu emonak. Bere kontuak eta bertsoak entzuten pozik egoten nintzan. Bertsolari ona zan eta bertso asko ikasi nebazan beragandik...».



Bizkargin bost urterekin. Bertsoa bota zuen egunean Erdian, makiladunaren azpian

Urretxindorrari errespetu eta lotsa haundia zion Balendinek. Hemezortzi urte igaroko ziren aitarekin plazan kantatzera ausartuko zenerako. Aitona, ordea, hurbilago somatzen zuen. Berarekin lasaiago sentitzen zen, hanka sartzeko hainbesteko ardurarik gabe. Beste alde batetik, garai hartan, taberna ingurua zen benetako bertso eskola, eta Urretxindorra, bigarren garaian batez ere, tabernetatik urruti zebilen, bertsolaritza plazaratu eta duintasun baten jabe egin nahian. Txotxo-Jeurik, aitonak, oster, taberna giro hura zuen maite. Bi arrazoi, beraz, lehen pausoak aitona ondotik emateko: «Hamalau urterako zerbait moldatzen hasi nintzan eta lotsak ere jaurti nituan». Hogeita hiru urterako, irabazle izango dugu Mungian antolatutako txapelketa batean. Hurrengo urtean, berriz, Getxon eratu da beste sariketa bat, eta berriro, bera hautatuko dute txapeldun.

Herririk herri

Normala den bezala, plazak ugaritzen hasi zitzaizkion, modako bertsolari bihurtzen ari baitzen. Herrietako jaietatik aparte, hauteskunde garaian, ez zen gelditu ere egiten. Behin, egun berean, sei mitinetan parte hartu beharra izan omen zuen. Aita eta Uriarte izaten zituen gehienetan bertsolari lagun, eta Agirre, Lauaxeta... etab. hizlari.

Aurrerantzean, behin baino gehiagotan, aita- semeak, zein baino zein, ikusteko eta gozatzeko parada ere izango zen. Eta holakoetan beti gertatzen den bezala, batzuen ahotan konparaketak dantzari.

Hogeita sei bat urte izango zituen, Bilboko Eusko Gazteriak antolatutako bira batean, Basarrirekin Iparraldera joan zenean. Labur egin zitzaizkien hiru egun luzetan, Donibane Garazi, Atarratze, Kanbo, Donibane Lohizu-



Bertsotan

ne... bertsoz jantzi zituzten. Biak gazte, ahots ederreko, bertsolari haundi... ez zuten nolanahiko bikotea egingo. Eta bidaia amaitzeko, Donostiara.

Urretxindorraren barru-poza imajina dezakegu. Bere egitasmo berrirako bazituen zutabe sendo bi, bidegile bi. Basarrirekin itxaropentsu zegoen eta semea ere indartsu zetorren, aita-
ren erreleboa hartzeko gertu; baina zorigaiz-
toko guda ankerrak dena hankaz gora bota
zuen.

Guda eta espetxea

Arestian aipatu dudan bezala, urte eta erdi inguru zeraman Ormaetxeko Klara Ealorekin ezkonduarik, Etxea utzi eta alde egin behar izan zutenean. Baserri aurretik ikusi zuen Gernika garretan. Bost kilometrora zegoen arren, irudi krudel hark bera ere erre egiten zuen. Etxea utzi eta alde egin behar izan zuten. Aitaginarreba Loiun, behiekin, geratu zen, eta bera, emazte eta haurtxoarekin, Bilbora. Baina laster eurek ere banandu behar izan zuten. Bizkargiko frentera bidali zuten enlaze moduan. Bidali ere egun seinalatuan, maiatzaren 20an, bere jaiotza egunean. Bere eginbeharra parteak eraman eta ekartzea zen, eta frentean zauritzen zirenak eramatea.


Bera ere, azkenean, zaurituta erori zen, Lezaman. Oso larri eraman zuten Basurtuko gaixo-etxera, eta biharamun goizean, San-



Aitaginarreba eta emazte Klara seme zaharrenarekin

tanderreko Bien Aparecida trinitarioen komentura. Hemen hiru bat egun egin ondoren, Sardineroko erietxera eraman zuten. Onetik libratu zen, zeren, handik egun gutxira, Bien Aparecidako komentu hura bombardatu egin baitzuten. Baina bere buruaren zortearekin poztu baino gehiago, han galdutako anaiekin gogoratuko da: «Negar gozatsu egin genduan hain maite genduzan gure anaiei galtze haregaz».

Berdin gertatuko da, handik lau urtera, askatzen duten egunean ere. Ezin da barruan gelditzen direnekin ahaztu: «... Pozik gengoan, baina bagenduan barruan arantzaz bat: Gure lagunak barruan itzi beharra...».



Sendatu zenerako, bere batailoia etsaien esku eroria zen. Italiarrak izango ziren lehendabizi eta gero «nazionalak». Lehendabiziko «kontzentrazio eremutik» atera eta Laredoko frantziskotarren komentura sartu zituzten. «Hona arte italiarrak agintzen euskuen. Hemetik aurrera, Patxitarren (*Francotarren*) eskuetan gengoan. Hemen hasi genduan kurutz-bidea.» Gero Laredotik Duesora, Puerto de Santamariara... Kartzelaren berezko garraztasunetik aparte, heriotzaren arriskua uneoro. Inork ez zeukan handik bizirik aterako zen ziurtasunik. Baina han ere ezin geldi egon eta talde batek, bera barne, nahi zuenari euskara irakastea erabaki zuen. Euskaragatik preso eta kartzela berean euskara irakatsi! Hainbestek ikasi omen zuten gainera. Liburuaren azalean «Aleman» jartzen zuten eta zaindarien batek zertan ari ziren galdetzean, alemana ikasten ari zirela erantzuten zioten. Oso ondo zegoela eta jarraitzeko gomendatzen omen zieten. Horrela, denen bistan, nagusien baimen osoarekin, gure «aleman» berriek euskara ikasi zuten.



Espetxe zigorraren agiria

Antzerkigile

Kartzelatik irten zen bai, baina beste batera sartzeko, euskaldunentzat garai hartan kalea bera ere kartzela baitzen. «...1941etik 1954ra bitartean isilik ibili beharra egoan...» Ezin zen euskaraz hitzik egin; ez zen kristauen hizkera. Euskadi aipatze soila, zein norbaitek gorria zinela salatzea, aski zen kartzelaratzeko. Arazoak zeuden publikoan euskaraz hitz egiteko. Bertsotarako, zer esanik ere ez.

Bitarte horretan: «... ez ginan geldi egon. lehengoaz gainera beste sei seme-alaba bagenduzan: bost seme eta alaba bat. Semeetariko bat hiru hilabetegaz hil jakun... Hainbat ginan ja-



Antzerkian, San Joseren paperean. Gurutzean, Abel semea

teko eta gitxi lanerako, baina apurka apurka oztoporik txarrenak gainditu egin genduzan...». Hori gutxi bazen, 1953an, Jesusen bizitza izeneko antzerki bat aurkeztu zuen, dena bertsoz egina. Idatzi bakarrik ez, zuzendu eta antzeztu ere bai. Berak bi edo hiru pertsonaia ezberdinen papera egiten zuen. Gainontzeko aktoreak ere familia artekoak eta auzokoak ziren.



Balendin eta Klara, seme-alaba eta errain-suhiekin, Donostian omendu zutenean

Berriro bertsoetan

Apurka-apurka, bertsoetarako ere aukerak zabaltzen hasi ziren, baina Bizkaian bera zen ia erreferentzia bakarra eta ez zeukan norekin jardun; baina hutsune horrek Balendin zirikatu eta indarberritu egin zuen. Beretzat bertsoa ez zen hitzen jolas hutsa, euskararen eta herriaren zerbitzura jarri behar zen ezinbesteko tresna baizik. Gainera Bizkaian norbaitek piztu behar zuen gudak itzalitako sua.

Alfontso Irigoien txapelketak antolatzen hasi zenerako, guda aurreko erraztasuna, hein ba-

tean, berreskuratuta zuen, eta bera izango zen irabazle lehenbiziko bietan: 1958an eta 1959an. Benetan egun hunkigarriak berarentzat, batez ere lehendabizikoa, eta ez txapelarengatik bakarrik: «... Nire bizitzako egunik ederrena hau izan zan, hainbat urtetako ixiltasunaren ondoren hainbat mila lagun eta euskaldun toki batean ikustea... Herriak zeozergura ebal, bizi ginala erakusten eban...».

Beraz, gudak ez zuen dena irentsi. Oraindik txingarra han zegoen, hauts azpian baina bizirik, hauspo baten zain. Eta bera izango zen aurrenekoa putz egiten.



Bizkaiko txapeldun (1959)

Lehendabiziko bertso eskola

Baina fama guzti honek ez zion bururik hartu. Txapelduna zela eta ez zuen distantziarik markatzen. Gertu zegoen beti zekiena irakasteko. Bertsoa zerbitzu bat zen eta zenbat eta zerbitzari gehiago hobe herriarentzat. Honela, bere inguruan sortuko da lehenengo euskal bertso eskola, Ariatzan, 1959 urtean, bere koinatu Pedro Ajuriaren tabernan. Ondo konpontzen ziren biak bietara. Ez zekiten oztopoen aurrean atzera egiten. Lehenengo egunean barruko egongela batean elkartu ziren, baina salaketaren baten beldurrez, tabernan denen bistan egitea erabaki zuten. Garai latzak ziren. Hiru-lau, nonbait, elkartzea susmagarri bihurtzen zen. Tabernan eginez gero edonork ikus zezakeen zertan ari ziren, eta ez zegoela ezkutuko matxinadarik. Bestalde,

publiko eta guzti izateak bertso eskolari beste kolore bat ematen zion. Entzutea hartu ahala, gero eta jende gehiago inguratzen zen. Anekdota bitxi bezala, gogoratzen naiz nola aleman batzuk etorri ziren Garriko bertso eskolara dokumental bat grabatzera. Denbora askorik iraun ez bazuen ere, ez zuen ez oihartzun gutxi izan. Bertsotatik aparte, abeslari boskote bat ere bazen Garrikoan, nola ez, gure Balendin tartean zela.

Bat-batekoan bakarrik ez, idatzi ere asko egin zuen Balendinek. Berdin zen, igande zein astegun, kalean zein baso edo soroan, bere



Garriko abeslari boskotea

alkandoraren poltsikoan ez zen ez blok ez boligraforik faltako. Irabazi ere hainbat sari irabazi zituen. Gerra aurreko zein gerra osteko euskal aldizkari gehienek bere lumaren igurtzi kantaria gozatu ahal izan zuten. Liburu bi ere utzi dizkigu, *Nere apurra* eta *Bizitzaren joanean*. Grabaketak ere bai, kasete eta diskoetan.



Bere liburuak, grabaketak...

Balendin eta gazteak

Balendinentzat izengoitiren bat aurkitu behar balitz, hori «beti gazte» izango litzateke. Eta ez osasunez hain argi eta sendo zegoelako, izpirituz gaztea zelako baizik. Ez zen gazte sentitzen, gaztea zen izatez. Garai bakoitzera egokitzeko hain zaila den erraztasun hori zuen. Horrexegatik, gazteekin gusturago ibiltzen zen eta erraz konektatzen zuen, baita haurrekin ere. Gazte edo



Gazte talde baten bisita, bere baserrian

haur taldeen bisita izaten zuenean (ikastolatik, bertso eskolatik...etab.) gustura sentitzen zen, etorkizuna argiago ikusiko balu bezala. Gazteren bat kezkatu ikusiz gero, ez zion tronutik hitz egingo. Bere mailan jartzeko ahaleginduko zen eta jarraitzeko animuak eman. Hara zer dioen Mikel Mendizabalek, ikastolako haur talde batekin bisitatu ondoren: «...gizon goxo eta irekiaren traza hartu genion Balendini, eta bertsolari gazte txoeekin ondo sintonizatu zuen ikuspegi arrerakoidun bertsolariarena...».



Seme gazteenarekin haur eta gazteei bertsotan

Gaztea zelako, beti ikasten ziharduen. Hirurogeita hamar urterekin, berrogeita hamarrekin baino hobeto egiten zuen bertsotan, teknikaz ere landuago. 70eko hamarkadan Lamikizko bertso eskola eratu genuenean ere, bera lehenengo prestatu zen. Ez zuen bereizketarik nahi izaten, bat gehiago zen taldean; bere paper eta boligrafoa harturik, zekien guztia emateko gertu eta denengandik ikasteko egarritz. Eta horrela, istripuak eraman zigun arte.



Gaztetan, aureskuaren zain, ezkerretik lehendabizikoa



Erroman bertsotan

Abertzale

Gaztetasunean ez bezala, abertzaletasunean eta euskaltasunean bere aitaren jarraitzaile sutsua izan genuen Balendin. «Aberri gauze-tan aitaren bidea jarraitzen ahalegindu naz eta aurrerantzean be bardin egin gura neuke» aitortuko zigun behin baino gehiagotan. Ezagutu zutenei entzun besterik ez dugu: «... haren bizitza eta bertsolaritza goitik beherako erresistentzia abertzalea izan ziren...» (X. Amuritz); «... egun horretan ohar-tu nintzen Balendin Enbeita oso bertsolari abertzalea zela» (M. Mendizabal); «... aberria eta euskara izan zituen bizitzaren zutabe eta ardatz» (A. Muniategi)... etab.

Urretxindorarentzat bezala, Balendinentzat ere «Bakoitzari berea» da lehenbizi bete beharreko legea. «Zer gauza ederra dan bakoitzari berea emotea! Eta euskaldunok geurea eskatzen dogu. Ez gara inoiz besteen lurra-kaz jaubetzera joan. Geurea nahi dogu...».

Bere abertzaletasuna ez da Euskal Herrira bakarrik mugatzen, munduko herri eta gizaki guztiak nahi ditu aske, nortasunaren jabe eta, era berean, elkarturik, maitasuna lokarri dutela. Bere mezua zabaltzeko ez du aukerarik alferrik galtzen. Erroman ere, Domingo Iturrate zorundun egin zutenean, honela abestu zuen eliz agintarien aurrean:

Aita santu jaun agurgarria,
agur eleiza kistarra,
ate zabalik hartu gaituzan
aberri Italiarra

Aita Domingon omenez dogu
eratu gaurko biltzarra,
eusko fedea bizirik dala
argi dirauskun lizarra.

Baina mirabe, nekez, bizi da
gure Euskal herri zaharra.
Justizi eta nortasun eske
urratu dau deadarra.

Aita Domingo, zure bitartez,
betor Jaunaren indarra,
amaitu hainbat herri ta gizon
erru bakoien negarra,
hil gorrotoaren garra,
bizitu maitasun izarra,
mundu hau dadin herri ta gizon
askeen sendi bakarra.

Hau da Euskadik nire bertsoan
gaur dakartzuen izparra.



Euskaltzale

uskara zen gure Balendinen motorra mugitzen zuen gasolina. «Euskeraren arnasa» zelako maite zuen bertsoa; *Euskerak adierazten dau* Lur hau Euskal Herria dela.

Landara gabe lorarik ez da
ez lora gabe fruturik
Euskera gabe ezin izan lei
egizko Euskal Herririk...

Euskera da bere ama eta arima. Askatasuna ere, inondik etortzekotan, euskararen eskutik etorriko da. Hitz gogorrak ditu euren hizkuntza galtzen uzten duten erdarazaleentzat. Maite dugula




Korrika-n lekukoarekin

esatea soilik ez da aski. Eta, nola ez, gazte eta haurrengan jartzen du bere itxaropena.

Guda aurretik, aitarekin mitinetan. Gudan, gudariekin. Kartzelan, «alemana» zelakoan euskara irakasten. Guda osteko isilunean, euskarazko antzerkia eginez. Guda aurrean zein ostean, euskal aldizkari gehienetan idatziaz... Francoren garai latzenetan bere base-rrian, oporrak igarotzearen aitzakian, ehunka euskaldunduaz... Beti ziharduen euskararen



Itziar eta Gotzone lehengusinak (Imanol Enbeitaren alabak)
hegaletan eta emazte Klara eskuinean



Bere bertsoetariko bat

Fededun kritikoa

Gizon fededuna zen. Gure etxean aurrekoen ohiturek bere horretan jarraitzen zuten. Errosarioa, «agurtza deuna», egunero erre-zatzen zen. Egongelan geneukan Jesusen Bihotzaren irudia eta, Gabon egunez, aita Balendin buru zela, kandelak pizturik, sukaldera aldatzen genuen abesti artean. Auzokoek ere parte hartzen zuten prozesio honetan.

Baina fede hori ulertzeko era ezberdinak zituzten bere aitonak (Txotxo Jeurik), aita (Urretxindorrak) eta Balendinek. Txotxo Jeurik apaiza udaletxetik bidaltzen zuen bitartean, Urretxindorraren aurrean ezin zitekeen apaizen aurka hitzik egin, eta Balendinek, oster, Elizaren zenbait jokaera salatuko ditu behin baino gehiagotan. Txotxo Jeuriren sinesmena bizitzak baldintzatzen zuen beza-

la, Urretxindorraren bizitza sinesmenak baldintzatzen zuen. Balendinen kasuan, eboluzio bat ikusten dugu. Geroago eta kritikoago bihurtuko da, ez hainbeste fedearekin, bitartekoekin baizik. Dena ezin da geroko zerura mugatu, hemen hasi behar da zerua lortzen, Egian eta Justizian dagoen zerua:

Pertsona bat naz, badot zentzuna,
ez naz sinesmen bakoa,
kontzientzia dot eta honekin
daukat zeregin nahikoa
Sinestuten dot badala norbait
gu baino goragokoa
Ez da gizonak, ezta diruak
indarrez sorturikoa.
Egia eta Zuzentasuna,
hau da gure Jaungoikoa



San Juan gurutzeak soroan jartzen

Beretzat herria, anaiak, maitatzea da Jainkoa
maitatzea. Ama Birjinari kantatzean, berriz,
bere lirikarik gozoena dario:

Baratz erdiko lili usaintsu,
urrezko orriz jantzia,
zure mosuan hor ni, goxoan
eztigai bila, erlia.
Bihotz barruko maitasunaren
antzikur zaran loria,
zure eztiaz idatzi nahi dot
Aman sorrera garbia.



Ariatzako jaietan, zaragiaren hiletako taldearekin, makurtuta, ezkerretik hirugarrena



Izadiaren miresle

Izadiarekiko maitasuna

Balendin eta izadiaren arteko loturak tratamendu berezia merezi duela uste dut. Bere osaba Imanolek eta, batez ere, Urretxindorrak etxeko zituzten izadia eta izaki oro. Euren bertsoetan nolako gozotasunez aipatzen zituzten ikustea aski da hala zela egiaztatzeko. Badirudi Balendinek oso-osorik heredatu zuela maitasun hori. Mendiak, zelaiak, ibaiak, zuhaitzak, txoriak. erleak, eguzkia, izarrak, ilargia, urtarok ... behin eta berriz, bere bertsoen gai zuzena ez direnean, apaindura baino gehiago, mezuaren adibide edo erreferentzia bihurtuko dira. Hortik datorkio, hein

haundi batean, bere bertsolari lirikoaren fama ere. Balendinentzat izadia ez zen inguratzeko gaituen zerbait, bera zen izadi horren zati bat, eta bertan integratuta sentitzen zen. Mendiko bakea, garbitasuna, edertasuna... maitemindu baten sentimenduz abestuko dizkigu. Bizkaiko mendiei kantuz hastean, zoriontsu sentitzeaz gain, ezagutu ere ongi ezagutzen dituela argi uzten digu. Txoriak benetan maite zituen. Zenbat eta txikiagoak, oraindik eta maiteago. Txindorra eta elaiak, batez ere, sakratuak ziren gurean. Marti-zozoa-
ren kantua udaberriaren deia dugu, «hego bako zozolistoak baino zigurragoa». Balendinentzat izadia gure irakaslea da.



Urrezko eztei-egunean, seme-alaba, errain-suhi eta ilobekin

Jaietan umoretsu

Une serioetan serio egoten zekien bezala, jai giroan umorea zabaltzen ere bazekien. Honetan aitonaren antz haundiagoa zuen aita-rena baino. Inoiz ez zuten lar edanda ikusiko, baina jaiari berea ematen ez zen atzean geratuko. Ez gaztaroan bakarrik, gerora ere adina ez zuen inoiz oztopo izan. Garai bakoitzera bezala, giro bakoitzera egokitzen zekien.



Semerik gazteenaren ezkontzan, bere suhiarekin

Ariatzako Santakurtze jaiak eta bertako zaragia famatuak dira inguruetan. Balendinek ez zuen, sano bazen behintzat, hutsik egingo, ez jaietara eta gutxiago zaragiaren jaioztzara (bezperan) eta «entierru»ra (azken egunean). Hil zen urtean ere bera izan zen andarietako bat. 1944an, oraindik kartzelatik nahiko irten berria, jarri zituen bertsoak jaiak eurak bezain famatu egin dira gerora. Jaietako kantu ofiziala bihurtu diren bertsook, doinu berezia dute, beste inon entzun ez dudana. Neurria ere berdin. Euretaz zaragi inguruko giroa kontatzen digu Balendinek. Garai haietan, ardoa edateko aukera larregirik ez zen izaten eta holako aukerak aprobetxatu egin behar. Batzuek, ordea, egun larregi errekuaperatu nahi eta...



Bilboko omenaldi egunean

Emaztearenganako maitasuna

Gizon haundi baten atzean emakume haundi bat ezkututzen dela esan zuenak bazekien zertaz ari zen. Halaxe izan dugu Klara Ealo ere, sendoa bezain apala eta isila, langile nekaezina. Ormaetxera hurbilduz gero, lanean ez aurkitzea zaila izango zen. Halaxe maite zuen Balendinek ere. Berari eskainitako bertsoak irakurtzea besterik ez dugu horretaz ohartzeko. Emaztearen eguna bertsoz eskaini gabe gutxitan igaroko zitzaion. Behin baino gehiagotan denen aurrean abestuko zion. Baina diodan guzti hau benetan egiaztatzen duen bertsoa Bilbon abestuko zuen, 1983. urtean, Buenos Aires antzokian egin zioten omenaldian. Bertso luze bi bota zituena agurrean. Lehendabizikoan denei beraren eta Ama Euskararen partez eskerrak eman ondoren, bigarrena, oso-osorik, emazteari eskaini zion:



Donostiako omenaldi egunean

Gizon bezela kontzentzi garbiz
egia nahi dot aitortu.
Nire bizitza begiratuta
badaukat zertaz ohartu.
Zergaitik naizen gaur naizen beste
argi nahi neuke agertu.
Aspaldi nintzan dama batekin
zorionean buztartu,
samin aldian poztu nauana,
neke aldian indartu,
sendi euskaldun abertzale bat
haztea dauana lortu,
beti ixilean baina lanean
ez dana inoiz aspertu.
Omenaldi hau berai eskainiz
gura neuskio eskartu.
Emazte Klara, herri txalo hau
ta nire bihotza hartu.



Hileta eguna. Ariatzako eliza eta enparantza txiki geratu ziren

Gizon apala

Bakuntasuna zen, beharbada, bere bertuterik haundiena. Hainbat omenaldi jaso zituen, Basaurin kale bati, oraindik bizi zela, bere izena jarri zioten, euskaltzain ohorezko izendatu zuten, Argentinako euskaltzaleen seme kutun, eta ez dakit beste zenbat aipamen, baina inoiz ez genion inolako haundikeri edo harrokeri izpirik ikusi. Bere bertsoak irakurtzea aski da horretaz konturatzeko.

Horrexegatik, beharbada, haundikeria eta harrokeria ezin zituen irentsi.

Pedro Mari Goikoetxeak Balendinez idatzitako bertso batekin amaituko dut ibilbide labur hau.

Aurpegi zimel, gorputz mehea,
baina bihotza zabala,
Hitzez biguna, umoretsua
eta izatez apala.
Lagun moduan hartu ninduzun
oso gaztea nintzala.
Gure artean ez zauden arren
hemen da zure itzala.



Bilboko Arenaleko bere irudia

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkio:

- Enbeita familiari

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2006ko urria
Ale-kopurua:	2.100
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2449-5 (Lan osoarena) 84-457-2451-7
L.G.:	BI - 1849-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística